

Adarrako zaindariei omenaldia

Astearte iluntzean Kirol Asteko sari nagusia jaso zuten Basteron, etxekoan eta mendizaleen babesean.

Ainhoa Aiertza aurkezleak merituen zerrenda egin zuen: "Ixabel Santa Cruz eta Alejandro Gonzalez bikoteak lan talde bikaina osatu du. 60ko hamarkadan hasi ziren mendizaleletasunari lotutako jarduerak antolatzen. Eta bestalde, 38 urte daramate Adarra mendian urte berriko salda ematearen ohitura horri eusten, euren seme-meren laguntzarekin. Aurten goan, adibidez, salda 1.800 lagunei banatu diete. Urte luzez mendiarekiko lotura transmititzen jakin dute. Eta hori, bereziki, beti erakutsi izan duten borondate eta konstantziari esker izan da".

Ikus-entzunezko baten bidez, bikotearen senideen eta herriko kirol eragileen eta politikoen lekukotzak ikusi ahal ziren. Besteak beste, hizlari agertu ziren Maria Luisa Etxeberria, Juantxo Arregi, David Urtasun, Virginia Cepeda, Nikolas Arruti, Jon Iraola, Iñaki Arregi, Andoni Alvarez, Lorenzo Estibariz, Aitor Amutxastegi, Angel Gonzalo, Mari Jose Izagirre eta Ana Carrere herrikideak.

Alkateak, diploma eman aurretik, sarituak eredu direla adierazi zuen: "Komunikabide-etan erronka handien, apustuen



Ixabel Santa Cruz eta Alejandro Gonzalez omenduak euren familia alboan dutela, Kirol Merezimenduen Saria jaso berrikan.

AIPAMEN BEREZIAK

Kirol jarduera ezberdinetan nabarmendutako kirolariak aipagai izan zituzten:

- Igeriketa: **Mikel Esnal**.
- Eskubaloia: **Leizaran** eskubaloiko jubenil mailako mutilak.
- Saskibaloia: **Ganbarako** senior mailako taldea.
- Txirrindularitza: **Peio Manterola**, **Dani Fursenko** eta **Laiene Pikabea**.
- Golfa: **Joseba Garmendia**.
- Gimnasia erritmikoa: **Oskarbi** taldea, **Maitane Arano** eta **Marta Virgala**.

berri jasotzen bada ere, beste lan bat aitortu nahi dugu, zuek biok isilean egiten duzuen, borondatez osoz eta musutruk. Jarduera fisiko osasuntsua aldarrikatu behar da, eta hor lan handia egiten duzue".



Omenduak Euskalduna Mendigoizale elkarteko kideekin batera.

Sarituak hitza hartu zuten, esker ona adierazteko. Ibilbideari errepaso egiten hasi eta zera esan zuten: "Mendiak guri asko eman digu: osasuna, lagunak onak... Jendea gure ondoan gustura ibili dela jakite-

ak, hartutako lan guztiak txiki uzten ditu. Saria guk adina merezi dute Euskaldunako kide eta gurasoek". *Gora andoaindarrak!* deidarra eginez amaitu zuen Ixabelek.

[KIROL ASTEA, 7. ORRIALDEA]

"Nire aipamenak izango dira beste larogei urtian"



Ekainaren 3an 80 urte betetzen dira Txirrita bertsolari handia hil zela. Berak iragarri bezala, bere aipamenak izan dira beste 80 urtean. Urrutira joan gabe, irailean "Gabon Txirrita" antzezlanaren eskainiko dute Urnietan.

[URNIETA, 4. ORRIALDEA]

Jai giroko giza-katea Donostian

Urnietako eta Andoaingo herritarren parte hartze handiarekin, Onkologikoa eta Foru Aldundiaren egoitza lotu zituen giza-kateak antolatzaileen aurreikuspenak gainditu zituen.

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]

Gazte festak gogoan

Afari kulturala, Pausokaren martxa neurtua, Urnieta Dantzan,... ekitaldi sorta zabalak aurreko asteburuan Urnietako Gazte festetan.

[GEHIGARRI BEREZIA]

Katramilaren festa

[ANDOAIN, 6. ORRIALDEA]

Landare azoka, larunbat honetan

Andoaingo lore eta landareen bigarren azoka, larunbat honetan Juanita Alkain plazan.

Andoaingo Udalak, Behemendi eskualdeko agentziak eta Dekolore ekoizle profesionalen elkarteak lore eta landareen azokaren bigarren edizioa antolatu dute, Salkin merkatarien elkartearen laguntzarekin.

Loreak, landare usaindunak, lore artisautza, barruko landareak, baratzekoak, haziak, sendabelarrak... Juanita Alkain plazan eskaintza zabalak izango da hamaika postuetan zehar.

Goizeko 09:00etan zabalduko dituzte postuak, eguerdiko 14:00ak bitarte. Landareen kulturaren sakontzea eta herriko merkataritza sustatzea azokaren helburu nagusiak dira.



Andoaingo Beteiloreekin batera Salkin, Behemendi eta Udaleko ordezkariak.

Harrera ezin hobea “Jan eta izan” liburuari



Pedro Subijana sukaldari ezagunak jaso du liburuaren ale bat.

Salesiar ikastetxeko ziklo ezberdinetako ikasleek sukaldaritzari buruzko liburu pedagogikoa idatzi, diseinatu eta ekoiztu dute. Harrera ezin hobea izan du liburuak, ospe handiko sukaldari oniritzia eman baitiote. Liburu argigarria da sukaldaritzarekin eta urteko zikloen martxarekin interesa izan dezakeenarentzat. Azalpen argigarria eman zuten aurkezpen ekitaldian: “Jatea eta elikatzea ez direla gauza bera aztertuta, eta gizartean jatearen eta ez elikatzearen aldeko joera hartzen ari garela kontziente, garaian garaiko produktuen gida bat ekoizti dugu: Jan eta Izan. Hilabete bakoitzean zer erein, zer lan-

datu eta zer jasotzen den baratzean azaltzen da, jasotzen den produktu baten analisisa egin da eta produktu horrekin errezeta bat aurkezten da”.

LIBURUAREN ZABALPENA HERNANIN ETA URNIETAN

Hernanin ostegun honetako azokan egongo direla aurreratu dute. Bertan direnei liburu eskura banatuko diete, azalpenak ematearekin batera.

Urnietako denda eta zerbitzu publikoetan berdina egiteko asmoa dute. Datozen bi asteetan ikasleak arituko dira liburu eskainiz, eta informazioa zabalduz. Liburuaren 500 kopia egin dituzte.



Hilario Arbelaizte gogo onez hartu zuen Urnietako sukaldari gazteen oparia.

Sanmielak, kartel lehiaketa

Uztailaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira aurtengo jaiak iragartzeko kartel proposamenak. Udaletxeko Bertan bulegoan aurkeztu beharko di-

ra sinadurarik gabe eta kartazal itxian, egilearen izena, helbidea eta telefonoa aditzera emanaz. Sara bakarra da, baina potoloa: 450 euroko saria.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Inbertsio estrategikoak garatzeko hamaika aukera zeuden

Partaidetza datuen berri eman du Urnietako Udalak

Urnietako Udalak aste honetan eman ditu maiatzeko partaidetza prozesuaren inguruko datu zehatzak, eta horien arabera kiroldegia eraberritzea da urnietar gehienek eskatu dutena. Eteneta elkartearen ondoko igogailua egiteko aukerak ere boto ugari jaso ditu, eta irisgarritasunari lotutako proposamena izanik, egitasmo hori garatuko dutela argi samar dago ere. Udalak datuok Ibatuz enpresaren eskutik jaso ditu, eta ekainaren amaiera aldera Denda Berrin, Lekaion eta Xoxokan egingo dituzten hiru bileretan xehetasun gehiago eskainiko dituzte.

BOTOEN ARABERAKO SAILKAPENA

1. Kiroldegia eraberritzea: 39.962 puntu.
2. Eteneta-San Juan igogailua: 39.885 puntu.
3. Aranzubi kaleko mugikortasuna: 31.633 puntu.
4. Estalitako igerileku berria: 29.298 puntu.
5. Idiazabal kalearen antolamendua: 28.456 puntu.
6. Etxebizitza sozialak: 21.878 puntu.
7. Aparkalekuak: 14.844 puntu.
8. Plazido Muxika plaza estaltzea: 14.027 puntu.
9. Oztarango pasagunea: 12.259 puntu.
10. San Juan Plazaren birmoldaketa: 11.318 puntu.
11. Xoxokako plazaren berregituraketa: 8.558 puntu.



Kiroldegia eraberritzea

Bozka gehien jaso dituen proposamena.



Eteneta-San Juan igogailua

Irisgarritasunari lotutako artean, bozka gehien jaso dituen proposamena.

BALIOZTATURIKO 1.326 BOZKA

Inbertsioen inguruko galdeketan 1.411 erantzun jaso dituzte, eta denbora tarte horretan proposamen horiek banan-ban egiaztatu dituzte. Datuak aletuta, 85 erantzun baliogabetu dituzte. Udalak adierazitakoaren arabera, “datu pertsonalen faltagatik, Urnietan erroldatuta ez egoteagatik, paperak behar bezala ez betetzeagatik edo online bidez bi bider sartzegatik” baliogabetu dituzte.

Bozka emateko garaian eredu klasikoa nagusitu da. Alegia, ia guztiek Urnietako kale eta auzoetan ipinitako buzoietan bozka eman dute. Informazio karpitan 288 gehiago, eta beste 148 internet bidez. Datu horiekin, urnietarren %26ak bozkatu du. Udalak eskerrak eman dizkie prozesuan parte hartu duten herritar guztiei, “erakutsi duten konpromezuagatik”. Parte hartze datuak “oso onak dira”, bestalde, prozesua bideratu duen Ibatuz enpresaren ustean.

ANTIAGO IRABAZLEAK



Sartuen izenak bai, baina argazkia argitaratu gabe zegoen Aiurriko paperezko edizioan.

Horra, beraz, Antia literatur lehiaketako irabazleak. Aurtengo saridunak Kimetz Cachafei-

ro, Arixen Unanue, Joana Garcia, Maddi Iztueta, Ane Otaegi eta Ainhoa Arruti izan dira.

Erraustegiaren mozioa atzera bota zuten EAJk eta PSE-EEK

Aztergai eta eztabaida ugari maiatzeko plenoan



Astearteko Udal batzaraldia zinegotzi guztien partaidetzarekin. Ezkerrean lehena Manuel Mayoek hartu berrikan.

Luze jo zuen astearteko plenoak, ia bi ordukoa izan baitzen. Ohikoa baino luzeagoa izan zen, tartean eztabaida mamitsu sortu zelako Zubietako erraustegiaren inguruan. EH Bilduk mozioa sartu zuen, eta minutu luzez erraustegiaren aldeko eta aurkako argudioak entzun ziren. Alderdi bakoitzak, gainera, bere datu eta erreferentziak erabili zituen. **Mikel Izagirrek** egin zuen EH Bilduren mozioaren defentsa, erraustegia osasunarentzat kaltegarria izango dela defendatuz. **Mikel Pagolak** argudio horiek zalantzan jarri zituen, eta gizarteari lasaitasunerako mezua helarazi nahi izan zion osasunarentzat erraustegia martxan jartzea kaltegarria izango dela zalantzan jarritz. **Consuelo Frutos** PSE-EEko ordezkariak erraustegiaren defentsa egin zuen, zaborrena aspalditik datorren arazoa dela adieraziz. Martin Garitano Ahaldun Nagusiaren kudeaketari kritika zuzena egin zion, agintaldi hartan kontsentsu guztiak hautsi zirela adieraziz.

Argudioak azaltzen irmo azaldu baziren ere, ez zen tentsiorik izan Udal ordezkarien artean. Eztabaida normaltasun giroan igaro zen. Baita EH Bilduk diru sarrerak bermatzeko errentaren inguruko mozioan ere. Nahiz eta puntu horretan EH Bilduk Gipuzkoako Foru Aldundiaren jokabidea Marotok Araban izan zuenarekin parekatu. **Maribel Vaquerok** ez zituen onartu **Itziar Artolaren** EH Bilduko argudioak, eta kezka agertu zuen eztabaidan agertu ziren adierazpenekin. Erraustegiaren eta gutxieneko errenta bermatzeko mozioak onartu gabe geratu ziren.

Osasuna defendatzea ardatz zuten EH Bilduren mozioak, EAJ-PNVk zalantzan jarri zuena. Lasaitasunerako deia luzatu zuen alkateak

Bi mozio horietan izan zen eztabaida gehien. Baita errefuxiatuen krisiaren aztergaietan ere. PSE-EEK eta EH Bilduk mozio bana aurkeztu zuten, EAJ-PNVren aldeko botoekin onartu zirenak. Bilduk sozialisten zurikeria kritikatu zuen, Europar errefuxiatuen krisian sozialdemokratek zerikusi zuzena dutela gogoraraziz.

Udalak, bestalde, aho batez erabaki zuen Bartzelonan sorburu duen Zurrumurruren aurkako sarearekin bat egitea. Arrazismoari eta xenofobiari

Aldundiak diru sarrerak bermatzeko errenta kentzeko erabakia gogor kritikatu du EH Bilduk, mozio bidez. EAJ eta PSE aurka agertu dira

aurre egitea du helburu, eta aurrerantzean sare horren ekimenekin bat egitea espero dute.

Gainerakoan, plenoaren hasieran aldaketa gauzatu zen EAJ-PNVko zinegotzien artean. Bederatzi urtez zinegotzi lanetan aritu eta gero, Martiarenak aurreko batzaraldian utzi egin zuen bere kargua. Mayoek hartu du haren lekukoa. Mayoek baserriari loturiko gaietan arituko da lanean. Behemendi elkartearen, esaterako, Udalaren ordezkari izango da.



Aldaketa gauzatu zen EAJ-PNV udal taldean. Manuel Mayoek hartu zuen Miren Martiarenaren tokia udal ordezkari gisa. Asteartekoa izan zen Mayoentzat lehen plenoa.

Zanpatuz taldearekin Hiru erregeen mahaira



Urnietako mendi elkarteak datozen asteetarako bi irteera interesgarri antolatu ditu. Bietara joateko asmoa duenak izena eman behar du aste honetan bertan, zehazki esanda Kantoi tabernan ostirala baino lehen.

HIRU ERREGEN MAHAIA Ekainak 11, larunbata

Zortzi orduko ibilaldia da. Egun berean irten eta itzuliko dira, busez egindako bidaietan. Bakoitzak bere janaria eraman behar du eta bereziki ura, bidean ez baitago iturririk. Mendia 2.500 me-

trora egotean, arropa egokia eramatea gomendatzen dute.

IBON ESTANES-BISAURIN Uztailak 2-3

Asteburua Lizarako aterpean. Larunbat goizean irten-go dira, igande iluntzean itzultzeko. Asteburu pasa doazenez plan alternatiboa egin ahal izango dute. Familiari edota ibilbide errazagoa egin nahi duenak Valle Sarriosa eta Foraton lepora irteera antolatuko dute. Otorduak eta ostatua prezioaren barne sartzen dira (60 euro, bazkide ez direnak 70), baina mendira eraman beharreko janaria bakoitzak berea eraman beharko du. Irteera honetarako ere arropa egokia eramatea aholkatu dute.

Urnietarrak Donostiako giza-katean



Gazte festak izan arren, festazale batzuk giza-katean parte hartu zuten.

Aurreko igande eguerdian milaka lagun bildu den Donostian, erraustegiaren egi-

tasmoa geratzeko eskatuz. Tartean hainbat urnietar bildu ziren Madrid etorbidean.



Buruntzantzan taldekoek euren musika Donostiako kaleetara eraman zuten.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Euskara Zuzendaritza

1936KO EKAINAREN 3AN HIL ZEN TXIRRITA ALTZAKO GAZTELUENE BASERRIAN

"Nire aipamenak izango dira beste larogei urtian"

2016ko ekainaren 3an 80 urte betetzen dira Joxe Manuel Lujanbio Retegi "Txirrita" bertsolaria hil zela, Altzako Gazteluene baserrian. "Nire aipamenak izango dira beste larogei urtian" esanda utzi zuen

Txirritak eta urteurren horrekin bat eginez, Urnietako herritarrek Xabier Letek idatzitako "Gabon Txirrita" antzezlanaren prestazena ari dira irailan taularatzeko. Urnietan bertan, eta Donostian.

BERTSO SONATUA

"Gazte-gazterik asi nitzan da orañdaño bitartian, zenbait umore eder jarri det Kantabria'ko partian; pixka batian ez naiz aztuko sartuagatik lur-pian, nere aitamenak izango dira beste larogei urtian".

Txirrita



Hernaniko Ereñotzu auzoko Latze baserria zegoen lekuan Txirritari eraikitako oroigarria.

Txirritaren ospeak Gipuzkoako mugak gainditu zituen eta XX. mendearen lehenbiziko herenean Euskal Herri osoan famatua egin zen. Mingain zorrotz eta bizkorreko bertsolari-tzat nabarmendu zen, eta haren ateraldi umoretsuak askoren gogoan gorde dira. Gai sozialak lantzen diren bertsoetan garai hartako herri-klaseen pentsamolde eta sentimenez berri ematen da.

Joxe Manuel Lujanbio Retegi, 1860ko abuztuaren 14ko goizeko hiruretan jaio zen. Gurasoak, Bautista Lujanbio Ganborena hernaniarra, eta Juana Josefa Retegi Iraola oiartzuarra izan zituen. Aitaren al-



Erreterian Txirritari hil aurreko omenaldia egin zioten, Teodoro Hernandorena euskaltzaleak antolatutako omenaldia. Parte hartu zuten bertsolarien artean daude Urnietako Alkain aita-semeak, Fernando eta Iñaki.

deko aiton amonak, Pedro Lujanbio eta Paskuala Ganborena, biak hernaniarrak, eta amaren aldeko aiton-amonak, berriz, Inazio Retegi oiartzuarra eta Frantziska Iraola erreteriarra izan ziren.

Bere anaia-arrebak hauek izan ziren: Josefa Inazia (1858ko otsailaren 11ean jaioa), Migel Jose (1862ko abenduaren 23an jaioa), Juan Maria (1865ko abenduaren 4an jaioa), Maria Aszension (1867ko azaroaren 5ean jaioa), Juana Bautista (1870ko apirilaren 6an jaioa), eta azkenik, Isabel Bizenta (1872ko azaroaren 5ean jaioa).

Txirrita, Hernaniko Ereñotzu auzoan kokatuta zegoen Latze-zar baserrian jaio zen. Baserri hori, Hernanitik Goizuetara bidean, Urumea ibaia-aren eskuinaldean, Benta-txuri, Pago-izarte eta Urdaburutik datorren eta Uxako-errika deitzaion erreka baten ertzean kokatuta zegoen.

Latze-zar baserrian hamairu urte arte bizi izan zen Txirrita. "Hijos de Jaime Puig, Destileria de leñas y fabrica de pro-

"Nire aipamenak izango dira beste larogei urtian" esanda utzi zuen Txirritak eta urteurren horrekin bat eginez, Urnietako herritarrek, Xabier Letek idatzitako "Gabon Txirrita" antzezlanaren prestazena ari dira irailan taularatzeko

ductos químicos" fabrika zenak Latze-zar baserriko soro eta larreak hartu zituen, eta familia osoa Erreteriarako Txirrita baserriara aldatu zen. Latze-zar baserriak denbora askoan oso-osorik iraun zuen, baina azkenean erori egin zen.

Antonio Zabalarik kontatu ziotenez, Txirritarengana jende asko joaten omen zen norbaiten kontrako bertso-paperekin jar zitzan eskatzera. Desamodio kontuak eta mota guztietako arrazoiengatik sortutako ezin ikusiak izaten ziren, besteak beste, bertso-sorta horietako gairik nagusienak. Enkargatutako gaiaren gainean bertso-sorta bat buruz konpo-

satzen zuen Txirritak eta bere ilobak paperean jarri, gero inprentara eramanez eta azoka egunetan saltzeko. Bertso asko galdu ez izana Antonio Zabala bezalako bertso-paperekin biltzaileei zor diegu.

Eskola zaharreko bertsolari mutil zahar, parrandazale eta pikaroren prototipoa bihurtu da Txirrita euskal iruditerian. Hargin ona izan arren, ez omen zitzaion lan egitea askorik gustatzen eta ahal zuen guztietan jai hartzen omen zuen tabernan edo sagardote-



Donostiako Altza auzoko Gazteluene baserria. Bertan hil zen Txirrita 1936. urteko ekainaren 3an. Ostiral honetan Txirrita hil zela larogei urte betetzen dira.

Antzerkia
"GABON TXIRRITA"

Emanaldiak

Donostia
Irailak 10, larunbata.
21:00. Trinitate plaza.

Urnietak
Irailak 23, ostirala.
22:00. Kiroldegia.

gian edanean eta jokoan aritzeko. Eskolarik gabekoa zen; inprentako hizkiak irakurtzeko gai bazen ere, ez zekien idazten eta bertsoak ilobari diktatzeko zizkion.

1935ean, lehenengo Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa txapelketa izan zen, eta hurrengo urteko edizioan (1936koan) berak jantzi zuen txapela.

1936ko maiatzaren bukaera aldean Goizuetan izandako krisi baten ondorioz, 1936ko ekainaren 3an hil zen Altzako Gazteluene baserrian.

Bilbon, Hernanin eta Altzan bere izena daramaten kalean daude. Erreterian bada Txirrita-Maleo izeneko industria bat. Bere izena Txirrita eta Maleo baserrien artean egoteagatik datorkiona.



Lehertu arte dantzan



Txupinazoa Egaperen eskutik



Txupinazoa bota eta gero, Egape dantza taldekoek hainbat dantza eskaini zituzten plazan.

Urnieta Dantzan ekimena hamargarren ediziora iritsi dela eta, dantzariak izan zuten 2016ko Gazte festen txupina botatze-

ko ohorea. Lehendik ere protagonista izaten ziren jaien hasieran eskaintzen zuten saioagatik, baina aurtengoan haiei aitortu



Buruhandi eta erraldoiak eta Bosko Anitz txaranga ezinbestekoak dira herriko jaietan.

zitiaion jaiaren gidaritzan. Egun bereziak izan dira Egape dantzako kideentzat. Ostiraletik igandera dantzan eman zuten.

Lehen saioan "Arin novo", "Arkupeko dantza", "Bok Spok", "Adarrak" edota "Arin kutxak" eskaini zituzten.

Artisautza azoka Belaxenenen eskutik



Amaia Lopez Perurekin GKE elkarteko arduradunetako Zubitxo plazan jarritako postuan.



Eskuz eginiko molde ezberdinetako pilotak erosteko aukera izan zen artisau azokan.



Artisautza azokan haurrek Arantxa Iturberekin eskulanak egiteko aukera izan zuten.



Jon Jauregi margolariaren lanak ostiralean Saroben ikusgai izan ziren, eta larunbatean kalean.

Ez nekeak, ezta bide txarrak



Helmugara iristearren poza ondoko hiru argazkietan.



Ospakizuna aurrera atera bazen, dozenaka laguntzaile eta bolondresen lanari esker izan zen.



Pausokako kideak helmugara iristen.

“Ikusi Pausokakoak baso eta zelaiak, mendi tontor gainera igo behar dugu. Ez nekeak, ezta bide txarrak gora, gora...”, kantu ezagunaren birmoldaketa egokia

izan daiteke aurreko larunbatean Urnietan egin zutena azaltzeko. Ehunka mendizale abiatu ziren Urnieta inguruko naturguneaz gozatzeko. Pausokako kideak,

ekimenak izan zuen harrera ikusita, pozarren zeuden. Jendartera esker ona adierazi nahi izan zieten biharamunean: “Beste behin ere erantzun bikaina, beste

behin ere oso polita izan da. Milesker, Pausokako txikiak betiko eskertuta izango dira”. Ez nekeak, ezta bide txarrak, gora gora... Urnietarren elkartasuna.

Muxugoxo elkartearen aurkezpena

Urnietako Gazte Festen atarian "Emaidazu muxu goxo bat" bertso-saio musikatua eskaini zuten Saroben Xamoa, Alaia Martin, Egoitz Zelaia eta Maialen Akizu bertsolarien eskutik. Bertaratutakoekin jolasean, umorearekin lotutako emanaldia eskaini zuten. Xamoa saioaren asmoa agertu zuen ekitaldiaren hasieran, “Arratsalde on Urnieta, ez dakit zenbat dauzkagun, baina tabuak kentzera gatoz”.

Saioa herrian sortutako Muxugoxo ekimena aurkezteko baliagarria izan zen. Bertso saioaren aurretik elkartearen aurkezpena egin zuten.

Aurreko ostiraleko bertso batzuk ikusteko aukera dago aiurri.eus webgunean.



Maialen Akizu bertsolaria kantuan, eta atzean musikariak eta bertsolariak.

Hamaikagarren edizioaren bila



Urnietako dantzariak Urnieta Dantzan ekimenaren hamargarren edizioan taldeko argazkia ateratzeko elkartu ziren. 220 lagun izan ziren denera.



Plazido Muxika plazan eskaini zuten saioaren unea.



Dantzari txikien saioa plazan izan zen. Hain txiki ez direnak ere Txanbolinen doinupean aritu ziren.



Haur, gazte eta heldu denak dantzan aritu ziren.



Gomarekin saio ikusgarria osatu zuten.



URNIETA DANTZAN EGUNeko UNERIK HUNKIGARRIENA

Hasierako bidegile haien lanik gabe gaur egungo dantza taldearen dinamika ezinezkoa litzateke. Eta lan hori eskertzeko, emanaldi nagusian ezusteko omenalditxo antolatatu zieten **Axun Fernandez, Koro Berasategi, Maria Sandonis, Isabel Salaberria, Jaione Jauregi eta Ane Loinaz** sortzaileei. Haien alaba eta gertuko diren **Irati, Janire, Nahikari, Garazi, Intza, Uxue** edota **Eider** dantza pausoak eskaini zizkieten. Bakarka dantzatu eta gero, **Edu Muruamendiarazekin** batera elkarrekin dantzatu amaitu zuten. Eguneko unerik hunkigarriena izan zen, sortzaileek sekula ahaztuko ez dutena.

Urnietan Marizulo antzezlanerako sortu zuten Koda dantza agurraren pareko bilakatu da. Eta halaxe, Urnieta Dan-

tzan jaialdiaren hasieran, lehen hezkuntzako bigarren mailakoetatik hasi eta helduenak bitarte, 157 dantzarik elka-

rrekin hasiera eman zioten saio nagusiari. Ondoren, hamairu talde ezberdinek dantza bana eskaini zuten eta agu-

rra dantzatzen 110 dantzari batera aritu ziren. Erakustaldi aparta izan zen, emozioz beterikoa.

Mozorro eta gastronomia festa Poxta Zahar taldearen eskutik



Afari kulturalen lehen saria eskuratu zuen taldea.

Poxta Zahar taldekoak pozarren daude iazko parte hartzea handitu delako, bereziki gazteagoak direnen aldetik. Herri bazkariaren edota afari kulturalaren parte hartzea dira poz hori agertzeko neurgailuak, bi jardueretan ere herrikide ugari hurbildu zirelako.

Herri bazkarian iazko parte hartzea handitu zen eta aurten martxan jarritako menu beganoak harrera ona izan zuen. Dastatu zutenak oso gustura geratu ziren eskaintza berriarekin.

Ostiraleko afari kulturalen epaima-



Herrialde ezberdinetako janariak mahai gainean, epaimahaiak azken erabakia hartu ahal izateko.

haiak hogeit hamar plater ezberdinen artean erabaki behar izan zuen. Lanak izan zituzten, baina azkenean lehen saria Italia aldera joan zen. Datorren urtean ekimen berdina ez bada ere, antzeko zerbait egitekotan dira.

PAELLA JATEA LARUNBATEAN

Poxta Zahar taldeak larunbat honetara aurreratu du paella jatea. Eguraldi onarekin San Juan plazan egingo dute, eta euriarekin bazkaria Azkorterera edota Egapera pasako dute.



Afrika aldeko tribuen janariaz gozatzeko aukera izan zen afari kulturalen.

Musikari ibiltariekin kalejiran



Kalejira ibilariak jarraitzaileen artean hainbat gazte koadrila izan zituen.



Giro polita sortu zuten Elektrotxufia taldekoek, kalez kale musika joz.

Fins aviat amics de Vilafranca



Giza dorre ikusgarriak sortu zituzten Urnietako kaleetan.



Sinkronizazio handia eskatzen duten giza figurak sortu zituzten. Urnietarrek txalo egin zuten, gogoz.

Laster arte! Fins aviat! Horrela-koak adieraziz elkar agurtu zuten euskaldunek eta kartalanez gazte festen amaieran. Larunbat arratsaldeko ospakizuna gogoangarria izan baitzen, Urnietan gutxitan ikusten den horietakoa. Bereziki Idiazabal kale inguruko giroa nabarmendu beharko litzateke, Gazte festen ekimen ezberdinek bat egin zutenean: Urnieta dantzan, Vilafranca del Penedes herriko falcons era-

kutaldia, Poxta Zahar taldeak antolatutako musika kalejira, Pausoka elkartearen ibilaldi neurtuaren amaiera,... Jai giro beteko larunbat arratsaldea izan zen.

Kataluniako giza dorreak eta Edu Muruamendiarazek zuzenduriko dantza saioak uztartuz joan ziren, Egapek antolaturiko egun osoko ospakizunari amaiera ederra emanez. Egapek esker ona adierazi nahi die Urnieta Dantzan jaialdian parte hartu zutenei: Gurasoei,

musikariei, parte hartzaileei eta giro ona jartzen lagundu zutenei.

MARKEL EN ETXE AURREAN

Pausoka elkartearen sorburua Markel herrikidearen kasua izan zen. Larunbat arratsaldean etxean zela, ezusteko atsegina jaso zuen etxean. Zehazki esanda, etxeko balkoiaren parean. Izan ere, haurra etxean zegoela jakin zutenean, Falcons taldekoek Markel bizi den etxe-


Falcons taldekoek Markel bizi den etxebizitzaren parean giza dorrea osatu zuten

bizitzaren parean giza dorrea osatu zuten. Zer esanik ez keinuak biziki poztu zuela Markel. Bera eta bere senideek esker ona adierazi zuten, pozik eta hunkituta.

WWW.AIURRI.EUS

Gazte Festak 2016:

- Argazkiak
- Bideoak
- Kronikak



AZKEN BIDEOAK > URNIETA

URNIETA



X. Urnieta Dantzan

URNIETA



Pausokaren martxa egokitua

URNIETA



Dantzari txikien emanaldia

Dantza ikusgarri bilakatzen denean



Egapeko dantzariak eta gurasoak, Kataluniatik etorritakoak... larunbat arratsaldean batzuen eta besteen saioak uztartuz saio ederra eskaini zieten herrikideei.



Giza dorre ezberdinak osatu zituzten Vilafrancako kideek, horietako bat Markelen etxearen parean.



Markelek eta senideek pozez eta esker onez hartu zuten balkoiaren parean eskaini zieten ikuskizuna.



Larunbat arratsaldeko kaledantza Edu Muruamendiarazek zuzendu zuen.



Adin guztietakoek parte hartu zuten kalejiran.



ANTZERKIA

Jendartean bidaide

AURRE ESTREINALDIA

Ekainak 7, asteartea
Adunako kultur aretoa
19:00. Sarrera doan.

Antolatzaileak



Antolatzaileek jarritako helburuak gainditu zituzten.

Jai giroko giza-katea, erraustegiaren aurka

Osasunaren aldeko eta erraustegiaren kontrako giza-kateak antolatzaileek ipinitako helburuak gainditu zituzten, 5.000 parte hartzaileen kopurua gaindituz. Eskuz esku, igande eguerdian Onkologikoa eta Diputazioa lotu zituzten. **Ipar Hai-zea** Andoaingo plataformak balorazio ona egin du, “Andoaindik jende ugari hurbildu da mobilizazioan parte hartzera. Izena eman dugun 353 lagunez gain, beste hainbat eta hainbat andoaindar hurbildu dira Donostiako giza-katera. Parte hartu dutenei eta elkartasuna erakutsi dutenei, denei, eskerrik beroenak”. Azken ekitaldia jendetsua izan zen, eta hango taula gainera osasunaren aldeko mezuak zabaldu zituzten.

Antolatzaile taldeko **Teresa Lopez de Munainek** gizarteari mezu zehatza helarazi zion: “Nafarroak ez du erraustegirik, Arabak ere ez. Zergatik Gipuzkoak bai? Zu, gizarteko kide bezala, ondo dakizu, guk bezain ondo, ez zenukeela nahi erraustegi bat etxe ondian. Badakizu txosten epidemiologikoez zer dioten: erraustegiak minbiziaz hiltzeko arriskua dakar. Zuretzat nahi ez duzun hori ez ezazu onartu beste gipuzkoarrentzat ere. Lagun gaitzazu. Olatua handitu besterik ez da egingo aurrerantzean eta zure laguntza ere behar dugu. Denon artean geldituko dugu”.

Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeko kide **Xabier Mitxelena** medikuak ere parte hartu zuen: “Medikuak garen heinean azpimarratu nahi dugu erraustegiak osasunerako kaltegarriak direla. Nazioarteko foro zientifikoetan argitaratutako hainbat eta hainbat ikerketa aztertu eta gero, hau ondorioztatzen dugu: Erraustegi baten inguruan bizi diren herriarrek malformazio, aborto, minbizi eta heriotza tasa altuagoak dituzte. Behin eta berriz ematen da emaitza hau, erraustegi zaharrek eta baita erraustegi modernoekin ere”.



Aiurri hamaboskarirako Wentxi egin-dako komiki-tira.




Igandeko giza-katean Buruntzaldeko herrikideak Madrid etorbidean izan ziren.



La Jodedera taldeak azken ekitaldian parte hartu zuen.



Andoaindik hirurehun kideak gora hurbildu ziren Donostiara.



Taula gainera igo zituzten irudiak Wentxi Andoaingo komikilariak egindakoak dira, Aiurri hamaboskarian udaberrian argitaratu zirenak.

Mintzodromoa eta ikasturte amaierako festa



Larunbat honetan Bastero kafeteriaren kanpoaldean Mintzodromoaren edizio berria ospatuko dute. Eguerdiko 12:15etan abiatuko den ekitaldi irekia da, Udalaren eta AEKren laguntzarekin antolatzen dena.

Ondarreta ikastetxeak egun berean ikasturte amaierako ospakizuna egingo du. Ziklo desberdinetako dantzak eta abestiak eskaintzeaz gain, irratsaio berezia egingo dute. Bazkariarekin eta festarekin osatuko dute eguna.

Elkarbizi taldearen ikastaroa Urigainen



Larunbat honetan, ekainak 4, Elkarbizi taldeak “Artea, elkarbizitzaren aldeko sorkuntza morala” izeneko ikastaroa antolatu du Ando-

ainen. Goizeko 11:00etan hasita, Urigainen hizlari arituko dira Enrique Ayerbe Etxebarria, Etor-Ostoa editorialaren arduraduna eta, besteak beste, ‘Euskal Artearen Historia’ eta ‘Etika eta Elkarbizitza’ bildumen argitaratzailea eta Gotzon Etxebarria Setien eskultorea. Besteren artean, 1936ko gerran fusilatutako eta terrorismoaren biktimen omenez Andoainen altza diren oroi-garrien egilea da.

Nikaraguako emakumeen aldeko lana sustatuko dute



Mertxe Brosa, Ana Carrere eta Mayra Pinedo hitzarmenaren sinaketan.

Andoaingo Udalak eta Nikaraguako **Sochilt Acalt** elkarteak hurrengo lau urtetarako elkarlanerako hitzarmena berri dute. **Mertxe Brosa** andoaindarra Nikaraguako emakumeen elkartearen sustatzaileetakoa da, eta egun hauetan Andoainen dagoela hitzarmena sinatzeko aukera baliatu du. Elkarte bereko **Mayra Pinedo** ere astelehen goizeko sinadura ekitaldian izan zen. 1984tik Malpaisilloko (Nicaragua) emakumeen burujabetza sustatzen ari

da, nekazaritzan, hezkuntzan eta osasungintzan makina bat egitasmoa aurrera eramanez. Egundak, milatik gora emakumeekin ari da lanean. Sochilt Acalt elkartearen esperientzia eredu garrantzitsu hartzen da Amerika osoan.

Mertxe Brosak 1991n Malpaisilloko herriak bertako alaba kuttunaren izendapena eman zion, eta 2012an Joxe Mari Olazabalen bidea izeneko saria jaso zuen Andoainen, bertako Caritas elkarteak emanda.

Beste eredu ekonomikoa amesten dutenen azoka



Argazkiko La Salleko ikasleak "Promozioa eta Garapena" GKEko kide dira.

Aurreko astean banka etikoa eta ekonomia soziala hizpide izan ziren Andoainen. Larunbatean, esaterako, Juanita Alkain plazan azoka antolatu zuten erakunde ezberdinen parte hartzearekin. Bertan izan ziren, besteak beste, Aspila kontsumo taldeko kideak. Elikadura ekologikoa lantzeaz gain, ekoizlearen eta eroslearen arteko harreman zuzenari eusten ahalegintzen dira.

Goieneko kooperatibako kideak ere bertan izan ziren, energia berriztagarrien aldeko apostuan indarra hartzen ari direnak.

Informazioa zabaltzen izan ziren ere gizarte izaerako Andoango hainbat elkarte. Besteak beste, Caritas, Eguzki, Kaleratzeak Stop edota La Salle Berrozpe ikastetxeko "Promozioa eta garapena" Gobernu Kanpoko Erakundea.



Aspila baserriko kideak elikadura ekologikoaren aldeko apostua egiten ari dira.



Eguzki talde ekologistako kideak, Goienereko kideen alboan.



Irasuegik (Fiare) eta Juliok (Koop 57) hitzaldia eskaini zuten aurreko asteazkenean Basteron, "Finantza etikoa, burujabetzarako tresnak" izenburupean.

Ehunka lagunek parte hartu zuten ekitaldi ezberdinetan

Katramila antzerki taldearen ospakizun jendetsua



Antzerkilari gaztetxo ugari dabilta Katramila taldean.

Katramila antzerki taldearen lehen eguna ospatu zen larunbatean. Antzeppen herrikoia-aren aldeko aldarrikapena bilakatu zuten eguna Katramilako familia osatzen duten eragileek, antzezlariek, horien gurasoek eta herritarrek.

Eguerdi partean hasi zen festa, antzerkia Andoango kaleetan zehar zabalduz, nolaz ez. Bi emanaldi ikusi ahal izan ziren: Patata Tropikala taldea Zumea Plazan eta Ganso y Cia bakar-laria Bastero Plazan. Ia berehun lagunek osatutako bazkaria egin zen Ondarretako ikastetxeko jolastokian, ondoren.

Arratsaldean Katramilako gaztetxoen txanda iritsi zen, Basteroko auditorioan. 7-8 urte bitarteko antzezlariek, "Sorgin aspertua", "Eduzuri" eta "Txibaren misterioa" eskaini zuten, Bastero betetzen zuten ikusleen irribarreak eta txaloak eraginez une askotan. Segidan, DBH bitarteko ikasle zaharragoak igo ziren taulara, lau talde hain zuten ere. Bizi-trena antzezlan eskaini zuten, bata bestearen segidan. Benetan bixitasunez eta graziaz aritu ziren Kristina Ropero eta Iker Etxarrik zuzentzen dituzten gazteak.

Antzeppena maite duten zenbait herritarrek eratu zuten Katramila orain bost urte, eta hazten joan da urtez urte, antzerkirako zaletasuna herrian sustatzen. Hamaika talde eta ehunetik gora antzezleri dituzten taldeak egun.



Bizi trena antzezanaren une bat.



Une dibertigarri ugari izan ziren antzezan ezberdinetan.



Walk man antzerkilaria, Bastero plazan.



KIROL ALBISTEAK

Ipar martxa ikastaroa Andoainen, ekainean



Ikastaroaren antolatzaile eta irakasleak: Juantxo Arregi (Euskalduna taldea), Ainara Rodriguez (Andoaingo Udala), Rosa Ormazabal eta Junkal Perez (irakasleak), Kris Bernal (Mintzalagun) eta Arantxa Aguado (Udaleko euskara zerbitzua).

Ipar martxako edo Nordik Walking-eko oinarrizko ikastaroa antolatu da astelehenerako. Modan jarri de kirol hori euskara uztartzeko asmoz antolatu dute ikastaroa Andoaingo Udalak, Mintzalagun ekimenak eta Euskalduna mendigoizale taldeak. Rosa Ormazabal eta Junkal Perez lasarte-arrak izango dira irakasleak eta kirol horrek eragiten dituen onura pertsonalak nabarmendu nahi izan dute.

Zer da ipar martxa?

Rosa Ormazabal: Kirol praktika berria da. Finlandiatik dator, ipar eskian aritzen zirenek urte osoan entrenatzen segitzeko asmatu zuten. Mugitzeko era berria da, gorputz osoari eragiten diona; kirol tradizional gehienek (korrika, bizikleta...) baino gorputz atal gehiago lan-tzen ditu. Hankei ez ezik, beso-oi eta orokorrean soinaren goi alde osoari eragiten dion kirola da.

Medikuak gero eta gehiago ari dira aholkatzen. Bakoitzaren egoera fisikora erabat moldagarria da gainera. Egokia osteoporosia, gaixotasun kronikoak zein bizkarreko arazoak, disko-herniak eta abarrak jasaten dituzten helduentzat. Ezagutu izan ditugu Parkinsona jasaten duten pertsonak, aise moldatu direnak kirol honetara. Azken batean, guztiz onuragarri eta

IKASTAROA:
Astelehenero. 17:00- 20:00.
IZEN EMATEA:
• Mintzalaguna taldea.
• 943 591 704 / 677 086 915.
• andoain@ae.eus.
• Euskalduna Mendigoizale taldean (bazkide izanez gero).
• Prezioa: 15 euro.

egokia da sasoia eta itxura hobetzeko kirola egin nahi duen edonorentzat.

Nori dago zuzenduta ikastaroa?

Junkal Perez: Edonor etor daiten. Sekulan kirolean aritu ez denak ere praktika dezake inongo beldurrik gabe. Hiru ordu nahikoak izan litezke gutxieneko teknika hartzeko. Jakina, gero hobetzea eskatzen du kirol honek. Material alde-tik, bi makil baino ez dira behar.

Zer lortu nahi da?

R.O.: Ipar martxaren teknika hartzearekin batera, etorkizunari begira talde dinamika sortzea eta hori euskaraz izatea. Izan ere, ikastaroko parte-hartzaileei jarraitzea proposatuko zaie, eurek nahi duten egun eta ordutegian. Horretan oso malguak izateko konpromisua hartzen dugu.

Lasarten aspalditik dabil taldea...

J.P.: Oso dinamika polita sortu da Lasarten, Ttakun euskara elkarteak zenbait ikastaro burutu ostean. Ehun bat lagun izango gara tarteka elkartzen garenak, Zubieta aldera joateko. Batez ere teknika hobetzeko elkartzen gara. Ordu beteko saioak izaten dira: lehen ordua erdian luzaketak eta teknika garatzen dira, eta ibiltzera joaten gara beste ordu erdian.

Zer diozue zenbaitek azal ditzaketen lotsa edo errezeloen gainean?

R.O.: Ulertzekoak dira hasierako lotsak. Baina akabo lotsak kirol hori probatu eta norberari dakarkio mesedeak osasunean sentitu ostean. Bestalde, ohartzen gara euskaldunak bereziak garela mendi kontuetan. Maiz entzun izan dugu "zuk esango didazu niri bastoiak erabiltzen?" edo eta "nik ez ditut behar bastoiak mendian ibiltzeko!". Ez dira ohartzen kirol honek ez daukala zerikusirik mendian ohiko bastoiak erabiltzearekin. Ipar martxa probatzeko aholkatu nieke; berehala kenduko zaie mentalitate hori burutik. Adibidez, lehengo egunean, Donostiako mendi taldeko veterano batek aitortzen zigun asmatu zuten jende helduarengan ilusioa piztu duela. Donostiako paisaia fisikoan normaltzen ari den kirola da.

Areto futbol txapelketa

Ekainak 5, igandea.

- 11:15. B Taldea:
Hogar Extremeño 7-0 Egur
- 12:15 A Taldea:
Keler 4-3 Txalaka

Allurralde kiroldegia.

- 09:15 B Taldea:
Academia G.F 3-2 Ekaitz
- 10:15 A Taldea:
Aure Maiton 4-5 C.Extremeño.

Kirol Astearen amaiera

ANDOAINGO KIROL ASTEA "KIROLEAN ERE BERDINTASUNEAN"

Ekainak 3, ostirala

17:00 Gazte lehiaketaren sari banaketa ekitaldia.
17:30 Judoa familian.
18:30 Kenpo kai arte marziala probatzeko aukera.

17:00 Bike trial erakustaldia
Irene Caminosen eskutik, Goikoplazan.
18:30 Zumba kalean, erakustaldia Goikoplazan.

Ekainak 5, igandea

10:00 Areto futboleko alebin mailako nesken arteko final aurrekoak.

11:00 Areto futbol txapelketa final aurrekoak.

www.kirola.andoain.eus



Aspe enpresako Beñat Rezueta eta Xabier Erostarbe, eta Patri Espinar, Ekhiñe Balerdi eta Nahikari Etxeberria

pilotariak pilota eskolako ki-deekin egoteko Arratera hurbildu ziren. Kirol Asteko hitzorduetakoa izan da

Iturzaeta pala memoriala

Txapelketa aurrera doa eta asteburu honetan Sorabillako pilotalekuan partida ugari iragarrita daude. Larunbat

arratsaldean, 18:00tan hasita, nesken eta mutilen mailako final aurrekoak jokatuko dira.

Herriartekoan finalera



Herriartekoan palako finala jokatzen saikatu da Andoain herria, Ola-berria gainditu eta gero.

Itzuliko partidaren ere Andoain nagusitu zen. Emaitza osotasunean hartuta, 3-1 izan da azken emaitza.

